

Gardentasunaren aldeko Sareko udalek 70 praktika onei buruzko katalogoa eta Ibilbide Orria prestatu dituzte oraindik bide horretan abiatu ez diren udalentzat

- Sareko bigarren fasea gardentasun-maila aurreratua daukaten udalei nahiz zerotik abiatzen direnei zuzenduta dago.
- Tamaina eta abiaburu desberdineko 23 udalek eta mankomunitate 1ek gardentasunerantz aurrera jotzeko elkarlanean daude.
- Udal webguneak informazio osagarria eskaintzeko eta herritarrekin modu irekian komunikatzeko tresna nagusia dira.

Bilbon, 2013ko urriaren 22an. Eudelek Gardentasunaren aldeko Sareko Bigarren Fasea abian jarri du. Horretan hiru Lurralde Historikoetako 23 udalek eta Txorierriko Mankomunitateak parte hartzen dute. Sare horren helburu berrietako bat gardentasuna oraindik lantzen hasi ez diren udalak inplikatzeta eta laguntzea da.

Horretarako, urritik aurrera udal talde politiko eta teknikoentzako gardentasunaren eremuan sensibilizatzeko ekintzak burutuko dira eta, batik bat, udalen arteko esperientzien berri elkarri ematea sustatuko da.

Sarea **etengabeko hobekuntzan** oinarritzen da eta huraosatzen duten udalak **elkarlanean aritzen** dira. Haien tamaina eta esperientzia desberdinak izanda ere, edonor hasi daiteke gardentasuna lantzen. Udal bakoitzari estrategia diseinatzeko eta gardentasuna barne-egitura zein -antolakuntzan sartzen lagunduko diote. Sareko kideen hobekuntza eta posizionamenduaren emaitzak Euskadiko udal guztiei helaraziko zaizkie.

Prestatutako GIDAK (2013ko urtarrila-ekaina)

"70 Praktika On" katalogoa. Euskadiko eta Estatuko udalen esperientzien bilduma, Udal gardentasunaren 11 gakotan eredu eta erreferentzia gisa hartzeko:

1. Hautetsiak eta konfiantzazko arduradunak
2. Udal langileria eta antolakuntza
3. Herritarrekiko harremanak
4. Udal plangintza
5. Informazio ekonomiko-finantzaria
6. Kudeaketaren efizientzia eta efikazia
7. Kontratazioa
8. Hirigintza eta obra publikoen alorrean
9. Open Data
10. Udal araudi eta hitzarmenak
11. Gardentasunarekiko konpromiso, zabalkunde eta komunikazioa



"Ibilbide Orria", estrategia eta tresnak

Egin beharrekoari buruzko gida praktikoa honetan Gardentasuna zerotik landuko da, maila aurreratu bateraino. Galdetegiak eta udal bakoitzean lan egiteko ereduak bezalako laguntzeko materialak barne hartzen ditu:

- **Autoebaluazio** politiko eta teknikorako txostena,
- Aurrerapen-mailari buruzko **diagnostikorako** galdetegia,
- **Herritarren beharrianak eta lehentasunak** identifikatzeko galdetegia,
- **Informazio ekonomiko-finantzaria** herritarrentzako modu ulerrazkoan komunikatzeko gomendioak.



Zeintzuk dira sarearen HELBURUAK?

Gardentasunari dagokionez, udal talde aurrendaria sortzea, hurrengo helburuetarako:

- Euskadiko Udalen **estrategia bateratua** sustatzeko, udal gardentasunari dagokionez.
- Udal bakoitzaren **aurrerapen-maila** diagnostikatzeko.
- Esperientzia eredugarriak eta udal **praktika onak** partekatzeko.
- Zerotik abiatuko diren udalentsako **laguntzeko eta gomendioak emateko** gidaliburuak zein eskuliburuak prestatzea.

Xedea, gardentasuna Gobernu onaren eta udal kudeaketa publikoaren oinarritzko ardatzetariko bat izatea da. Euskadiko Udalen gardentasunean egindako aurrerapenen bidez, **herritarrekiko harremanak hobetuko dira** eta, aurrekoaren ondorioz, kontuen azalpena, udal informazioaren irisgarritasuna eta herritarren kontsultei emandako erantzuna ere sustatuko dira. Ildo horretan, webgunea udal gardena edukitzeko tresna nagusia da, bere aurkezpen-gutunaren modukoa, eta auzokoekin komunikatzeko kanal nagusia osatzen du.

24 kide: 23 udal eta Mankomunitate 1.

Bizkaia: Bilbo, Barakaldo, Getxo, Ermua, Eibar, Basauri, Portugalete, Santurtzi, Galdakao, Elorrio, Arrigorriaga, Etxebarri, Derio, Mungia, Gueñes, Abanto-Zierbena eta Ugao.

Txorierriko Mankomunitatea

Araba: Vitoria-Gasteiz, Amurrio, Laguardia.

Gipuzkoa: Irun, Elgoibar, Hondarribia.